| 20' | Entzuten | 6.06 |
|---|---|---|

## Entzuten

**1. AZALPENA**
Gatazka bat nola gertatzen den entzuteko eta hura berritzen saiatzeko jolasa. Parte-hartzaile batzuek egingo dute, ez denek batera.

**2. HELBURUAK**
Gatazka entzuten eta deskribatzen ikastea.

**3. PARTE-HARTZAILEAK**
8-9 urtetik gorako kideen taldea, ikastaldea...

**6. GARAPENA**
Parte-hartzaile batzuk gelatik irten edo holtz tolesgarri baten atzean jarriko dira, edo taldeari bizkar emanda, gertatzen dena ez ikusteko. Bitartean, aurrez prestatutako gatazka bat egingo dute gainerakoek, zarata handia eginez. Besteak entzun eta taldean zer gertatzen den ulertzen saiatuko dira, eta hotsak bereizten, etab.

Gatazka amaitzen edo eteten denean (hasi eta 5 edo 10 minutura), entzuten izan diren parte-hartzaileak taldera itzuli eta gatazka berritzen ahaleginduko dira, eta kanpotik nola bizi duten azaltzen.




**7. EBALUAZIOA**
Jolasaren jarraipena da, gatazkatik kanpoko taldearen balorazioan oinarritua. Gatazka-egoeretan entzuteko prozesuari buruz hitz egin daiteke, eta gatazka eta haren entzuera dutenen benetako errealitateak alderatu, besteak beste.